Burdinola

J.L.U.

Peabideen ibilbidea berreskuratu eta egokitu duten Burdinolaren hainbat lagun

kutxa gizarte-ekintza obra social

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

LEGAZPIKO UDALA

Argitaratzailea: Burdinola
Testua: Jose Luis Ugarte eta Mercedes Urkiola
Diseinua: Manolo Salmeron
Maketazioa: ZUM Edizioak
Argazkiak: Julian Auzmendi eta Jose Luis Ugarte
D.L.: NA-2039 / 2000

LEGAZPI

BURDINAREN HARANA

J.A.

PEABIDEAK

PEABIDEETAN BARRENA

PEABIDEAK

Antzina burdina egiteko labeak mendietan bertan, meategietatik gertu, kokatzen ziren. "Haizeolak" edo "jentilolak" deitzen zitzaien. Aurrerakuntzak, berriz, ibai bazterretara ekarri zituen burdinolak XII. mendearen inguruan, uraren indarraz baliatuz. Hala, "zeharrolak" azaldu ziren. Labeak, harananaren barrenean kokatzean, meategietatik urrutiratu ziren eta, ondorioz, haiek elikatuko zituzten burdinkiaren garraioari ekin behar izan zitzaion. Era horretan "peabideak" sortu ziren: meategietatik burdin lantegietaraino burdinkia garraiatzeko mendia zeharkatzen zuten bideak.

Izan ere, Legazpin burdingintza oso garrantzitsua izan da aspaldidanik eta, ondorioz mea edo burdinkiaren garraioa etengabea izan da luzaroan. Erdi Aro eta Aro Modernoan meategi garrantzitsuenak Mutiloan zeuden eta bertatik hainbat peabide abiatzen ziren inguruko burdin lantegiak hornitzeko, Legazpikoak besteak beste.

Oraingo honetan haietako bi ezagutzera eman nahi ditugu. Gaurko joerari jarraituz, "peatza"-tik lantegira joan beharrean, haranetik mendi aldera joko dugu, ibai bazterreko ola guneetatik mendi aldeko meatzegunetara, alegia. ***Olaberri*** edo/eta ***Telleriarte-Brinkola*** izango ditugu jarraian deskribatzen den ibilbideen abiapuntu. Biek ***Biurrain***en bat egiten dute eta handik ***Peatza***ra bitartean bide beretik doaz. ***Aizpuru***ko talaia dotorea izango da ibilbide hauen helmuga aproposena.

J.A.

Makatzaga baserri inguruan

OLABERRIKO PEABIDEA

Olaberriko peabideak izen bereko burdinola elkartzen zuen *Peatza*ko meategiekin. 1860ko hamarkadan trenbidea egitean bide zaharraren zati bat galdu zenez *Motxorroko kaxeta*tik abiatuko gara.

MOTXORROKO KAXETA- BIURRAIN

*Kamiñu errealar*en ondoan *Motxorroko kaxeta*ren parean dagoen "erromara" zeharkatu eta bidean gora abiatuko gara; bidea gogortuta dago ***Armuño*** deituriko hegira bitartean. Bertan, aipatu *Motxorro* baserriaren "egileor" bat ikusiko dugu eta aurreraxeago *Sanmigeletxeberri* baserrikoa. Aldapari eutsiz ***Makatzaetxeberri*** baserrira iritsiko gara, nahiz eta azken zatia antzinako "peabidea" ez izan, sasiz betetako ondoko zulo batetik baitoa. Baserrira iritsi aurretik eta *Zepadi* izeneko parajean, antzinako haizeolek utzitako zakar edo "zepa" pilak ikusi ahal izango ditugu. Esan bezala, "haizeolak" burdina egiteko mendiko labeak ziren eta zepak edo zirarrak langintza haien lekuko ditugu.

J.A.

"Peabidea" Kortaerrekan

Makatzaetxeberri XIX. mende hasieran eraikitako baserria da, *Kortabarren* izeneko parajean, *Antsuolaras* kortaren barrenean. Baserri horretatik zeharka zeharka, aldaparik gabe, *Kortaerreka* eta *Luberria* gurutzatu ondoren, ***Makatzaga*** baserrira helduko gara. Dagoeneko XVI. mendeko agirietan aipatzen den baserria atzean utzi eta *Santa Marina* edo *Aztiriko bentara* doan errepidera irten beharko dugu. Bide horrek *Olaberriko peabidea* lurperatu zuen. Metro batzutan aurreratu eta, ***Tantaierreka***ko parajean errepideak biurgune itxia egiten duen lekuan, Biurrain aldera joko dugu bertatik abiatzen den porlanazko bidetik.

BIURRAIN-PEATZA

Biurrain paraje ikusgarri bezain xarmangarria da. Baserritarrek beren izerdi eta nekez txukundutako sakon honek ikuspegi interesgarria eskaintzen digu: zelai leunen ondoan aldapa malkartsuak, haran aldamenetik dihoan desbideratutako erreka, zaindutako soro, larre eta baserriak...eta besteak beste, antzinako legazpiarren jardueraren lekuko diren zepadiak han eta hemen.

Biurraingoikoa baserrian bat egiten dute aipatutako Olaberri eta Telleriarte-Brinkolako "peabide"-ek eta ***Santa Marina*** edo ***Aztiriko benta*** aldera abiatuko gara porlanazko bidetik. *Urzabal* sakona zeharkatu eta berehala ailegatuko gara bertaraino. *Bentalegor, Aztiriko benta* edo *Santa Marina* izenez ezagutzen den mendate hau Gabiria, Mutiloa eta Legazpiko udalerrien mugan dago. Ermita, benta eta eskolak, hain zuzen, Gabiriko udalerrian kokatzen dira. Antzinatik bidegurutze garrantzitsua izan da, hemen batzen baitziren Segura, Legazpi, Zumarraga (*Argisao* eta *Aizalekutik* barrena) eta Zegamatik (*Otañutik* barrena) zetozen bideak. Benta egoteak batetik, eta Santa Marinari eskainitako ermita bestetik, pasabideko lekua zela adierazten digute.

Segurarako bidea hartuko dugu bolatokiaren paretik. Errepidera atera eta metro gutxitara, berriz, eskuinetara dagoen ***Peatza***-rako bideari jarraituko diogu. *Peatza* Mutiloako udalerrian dagoen sakon handi bat da berez, antzina meatzegune garrantzitsua. Egun dena sasiz eta zuhaitzez estalia dago eta ezer gutxi ikus daiteke. Beraz, gure ibilaldiari bukaera egokia emateko pistan aurrera jarraituko dugu eta harrobitik

J.L.U.

Biurraingo baserriak

J.L.U.

Aztiriko Santa Marina eliza

gora, *Aizpuru*ko gainera iritsiko gara. Goierriko ikusmira zoragarria izango da goraino ailegatzen direnen saria.

Aizpuru, izenak dioen bezala, haitzaren buruan dagoen parajeari esaten zaio. Haitzaren azpian berriz, *Aizpea* auzoa dugu. Inguru hauek ere antzinako meagintza eta burdingintzari lotutako historia luzea erakusten dute eta, gain-gainetik bada ere, bertatik garbi ikus daitezke *Aizpea*ko labeen aztarnak.

TELLERIARTE ETA BRINKOLAKO PEABIDEA

Telleriarte eta Brinkolako olentzako burdinkia *Peatza*tik atera eta *Santa Marina*, *Biurrain* eta *Teniolatik* barrena ekartzen zuten *Egiluze*ko parajeraino. Zabal horretan "peabidea" bitan banatzen zen: bata *Korta* aldera zihoana eta bestea *Elorregi* aldera zihoana. Dena den, oraingo honetan ibilbide bakarra proposatuko dugu: *Korta* eta *Peatza* elkartzen duena.

KORTA-BIURRAIN

Gaun egun ***Korta*** izenez bi etxe ezagutzen dira: *Kortaazpikoa* eta *Kortagarakoa*. Erreka eta trenbidearen artean daude, Telleriartetik Brinkolara doan errepidearen ondoan. Izenak berak adierazten duen bezala saroi edo korta izango zen jatorriz, hots, ganaduaren larrerako erabiltzen zen egitura biribileko sail pribatua. 1747 urtean eraiki zen harrizko zubitik igaro eta *Korta*ko etxaldetik *Peatza*rako bidea hartuko dugu. ***Arbela***ko aldapa malkartsua ekiditeko *Kortagarakoa* baserri ostean ezkerretara joko dugu bide belartsutik Elorregitik gora datorren bidearekin bat egin arte. Handik ***Egiluze***raino Telleriarteko "peabide"-tik joango gara. Tarte horretan eta bide bazterrean, karobi eder bat gordetzen da ***Epuru***ko parajean. *Errautegi* baserriarena da.

*Egiluze*n, porlanazko bidea zeharkatu, pagadia atzean utzi eta ***Teniola*** aldera abiatuko gara, *Kalpartegi*tik barrena. *Teniola*n, beste hainbat lekutan bezala antzinako burdingintzaren lekukoak diren "zepadi" eta zepak sarri azaltzen dira, horretarako inguru aproposa baita: baso ugari, ura eta meatzak gertu. Bideari jarraituz ***Biurrain*** sakonera ilegatuko gara, non *Motxorro*tik datorren ibilbidearekin bat egingo baitugu. Peatzaraiono doan azken tartea aurreko lerroetan azaldu dugu.



J.L.U.

Jentiloletako zepa